

## 12. (1441-1450)





## 12.1. 1441. URTEA

### 12.1.1. Jauntxoaren testamentuak, eta Bianako Printzea

1441. urtean, urtarrilaren 11n, Loiolako jaun zen Lope Gartzia Lazkanokoak testamentua egin zuen. Emaztea Santxa Ibañez Loiolakoa zuen, baina honek 23 urte geroago egin zuen berea<sup>1</sup>.

1441. urtean testamentua egindako beste jauntxo bat Beltran Gebara izan zen, Beltran III.a Belez Gebarakoa zenaren bigarren semea (Pedro II.a Belez

Gebarakoa semearen anaia eta Zestoako Altzolaratse-  
ra ezkonduko Joan Beltran Gebararen anaiordea).  
Burgosko San Pabloren monasterioan egin zuen tes-  
tamentua, 1441-IX-1ean. Gaztelako Joan I.a erregeak  
Tahalu-ko konde izendatu zuen Beltran Gebara hau<sup>2</sup>.

1441. urtean Nafarroako Blanka erregina hil egin  
zen, eta Karlos semea, Bianako Printzea, hasi zen  
erreinua gobernatzen, baina aita (Nafarroako Joan  
I.a) erregearen ordezkari eta erreinuaren oinordeko  
gisa<sup>3</sup>.

## 12.2. 1442. URTEA

### 12.2.1. Heretikoak Durangon, Tolosa eta Gipuzkoa

1442an Lekeitioko Andre Mariaren eliza erre egin  
zen, eta, zaharra botata, bertan handiagoa eraikitzeari  
ekin zioten. Urte berean indar hartu zuen Durangon  
Eliza katolikoaren barruan mugimendu heretiko  
batek. Alonso Mela edo Mellakoa fraide frantziskota-  
rra izan zen buru. “Fratricelli”en mugimendua izenez  
bataiatu zuten gero<sup>4</sup>.

Europar garai hartan “Espiritu Librea” izeneko  
mugimendua oso hedatuta zegoen, eta Durangokoa  
oso antzekoa zen. Hark zioenez, arima salbatzeko  
Eliza ez zen beharrezkoa. Bestalde, ondasun- eta  
emakume-komunitatea aldarrikatzen zuten. Gizarte-  
mailak deuseztatu eta komuna independentea sortu  
nahi zuten. Kristautasunaren hasierako komunismora  
itzultzea zen asmoa.

Zamorako familia ospetsu batean jaiotako Alonso  
fraidea Durangon zebilen 1425. urteaz gero, eta 500  
bat kide bildu zituen mugimenduak 1442-45 bitarte-  
an. Gero, Gaztelako erregeak haiek zanpatzeko agin-  
dua emanda, heretikoak torturatu egin zituzten.  
Batzuk Durangoko Andre Mariaren plazan sutan erre

ere egin zituzten. Alonso Mellakoa Granadara ihes  
egitea lortu zuen, baina han kanabera-geziez hil egin  
zuten<sup>5</sup>.

Alonso fraidearen jarraitzaileak gehienbat pertso-  
na xumeak ziren, baserritarrak eta artisauak batez ere.  
Praktika mistikoak ere ba omen zituzten tarteka.  
Gauean biltzen omen ziren, turuta batzuk jota, baso  
eta mendietan batzuetan, eta hiribilduan bertan beste-  
tan<sup>6</sup>.

1442. urtean Gaztelako Joan II.a erregeak agindua  
eman zuen Nafarroatik itsas probintzietara, eta alde-  
rantziz, zebiltzan salgaiak nahitaez Tolosatik pasa  
zitezien<sup>7</sup>. Gipuzkoan urte hartan Gonzalo Ruiz Casta-  
ñedakoa zen korrejidore<sup>8</sup>. Dena den, Gaztelako Joan  
II.a erregeak Valladoliden bildutako Gortetan (lehe-  
nago 1432an Zamorakoetan bezala) honako hau era-  
baki zen: Gipuzkoara korrejidorea bidali baino lehen,  
Gipuzkoak berak eskatu behar zion erregeari bidal  
zezala<sup>9</sup>.



12.1. irudia. Tolosako Idiakaitz jauregia eta Andre Mariaren eliza.

## 12.3. 1443. URTEA

### 12.3.1. Aiako eliza, Peru Abendaño, eta zestoarrak Durangon

1443-XI-9an Erroman Eujenio IV.a aita santuarengandik Joan Ortiz jaunak Aiako San Esteban elizako patronatua eta apaizak apezpikuari aurkezteko eskubidea lortu zituen. Joan Ortiz jauna Martin Gartzia Legoiaga-koaren oinordekoa zen, hau da, Aiako Santiagoerreka-ko Legoiaga etxekoa. Aurrez Martin Gartzia jauna bertako eliztarrekin akordiora heldua zen<sup>10</sup>.

Bide batez gogoratu egingo dugu Zestoan ere badirela Legoiaga izeneko bi baserri, bata Sastarrain aldean eta bestea Aizarnan Ezenarro aldean.

1443-III-13an Bizkaiko Butroeko Gomez Gontzalez oñaztarrak Martin Ruiz Olosokoa ganboatarrarekin ezkontza bat hitzartu zuen. Butroekoaren Joana

alaba Martin Ruizekin ezkonduko zen. Gero bi familiak etsaitu egin ziren, eta Joanak ama alargunari Olosoko jaunarekin ezkondu nahi zuela jakinarazten zion. Amak ezetz, baina alabak honakoa erantzuten zion:

“Berba orren berba gazia,/ berba orri nai ez dakio-  
la balia;/ dardoak egiñarren bere aldia,/ Olosoko da  
ene egoteko aulkia”<sup>11</sup>.

Lehentxeago aipatutako 1443. urtean bandoen arteko borroka famatu bat gertatu zen. Peru Abendaño ahaide nagusi ganboatarrak bere jarraitzaile guztiak bilduta Bizkaiko prestamero zen Otxoa Santxez Gineakoarekin Otxandiora joan zen. Han Gomez Gontzalez Butroekoaren dorretxeak suntsitu ondoren, Aramaiora sartu eta hogeit hamar etxe erre zituen, Mendiola-ko dorrea barne.



### 12.2. irudia. Zestoako Legoiaga baserria (Sastarrain aldekoa).

Joanes Mendiola kanpoan zen, baina albistea jakin bezain laster etxera itzuli zen bere jarraitzaileekin. Su-emaileak joanak ziren orduko, baina atzetik jazarrita Mendiolak ganboatar batzuk hil egin zituen, Gasto “Apala” besteak beste. Abendaño eta bere lagunak Aratondoko mendatean zihoazela, borrokan egin zuten, eta Aramaiokoak irten ziren garaile. Gertaera haren oroigarri gisa Pedro Abendañoren erosta kantua sortu zen:

“Yzarragati gora elcian joeala/1 Jaun Peru Abendañococ esala:/2 Oñetako lurrau jauil(t) ycara,/3 Gorpuceco lau araguioc berala./4 Oi aldioneri albanegui empara,/5 Barriz enendorque Aramaio-co contrara./6 Mendiola, yl deustac gasto Apala,/7 Bere lagunzat beste asco ditubala.//8”<sup>12</sup>.

Historia honen beste bertsio bat ematen du 1443-X-15ean Atxondoko Arrazolan, Ipiztikoarriagan, Durangon Tabirako hiribilduko biztanle ugari bilduta Joan Fernandez Barrongoa eskribauak egin zuen agiriak. Arrazolan bildutako bi Lope Zestona aitzogilea

eta Joan Lili ziren. Hantxe zen Bizkaiko eta Enkartziotako Otxoa Santxez Gineakoa prestameroa ere. Pedro Mendraka durangarra, Joan Perez Mendrako aita eta Lope Miota erregearen agiriarekin joan zitzaizkien. Bertan Aramaioko zenbait pertsonaren aurkako epaia jakinarazten zen, Martin Perez Mendrakakoa, Joan Miota eta Pero Santxez Sarriakoa hil zituztelako. Hildakoen senideek Durangaldeko Kontzejuak bilarazi egin zituzten epaia bete zedin.

Pedro Abendaño, prestameroa, alkateak eta gainerako jendea Ipiztikoarriagako aldapan behera joanda Aramaioko ibarrera sartu ziren epaia betetzera. Aurka egin zieten, ordea, hangoek, eta Martin Martinez Arratiakoa (Tabirako auzotarra) eta Joan Zabaleta (Pedro Abendañoren ezkutaria) hil egin zituzten. Baita Oikinako (Bilbo ondoko) Martin Abendaño, Lope Miota, Otxoa Zurikarai (Tabirako hiribildukoak) eta Pedro Abendañoren beste ezkutari asko ere.

1443-X-15ean bertan, Joan Fernandez Barrongoa eskribauak Otxandion, Joan Lope Azjoriakoaren etxe

aurrean, beste agiri bat idatzi zuen. Han Durangoko Tabira hiribilduko hainbat auzotar eta biztanle zeuden bilduta. Haietako batzuk Lope Zestona aiztogilea, Joan Zestona eta Joan Lili ziren. Badirudi Tabiran bizi ziren zestoarrak zirela. Haiek ziotenez, Aramaio-ko kondenatuak eta gaizkileak Otxandion babesten ziren, eta Otxandioko dorretxea sunsitzeko justiziak

nahikoa arrazoi bazuen. Hala ere, durangarrak ez zituzten deitu justizia-gizonak dorretxe hura erretzera, eta haiek ez zuten horretarako inolako asmorik. Otxandion, ordea, Pedro Abendaño zegoen (erregearen baleztari nagusia) laguntzaile askorekin, eta haiek dorretxea erre edo eraitsi egiten bazuten, Tabirako biztanleek horretan ez zuten errurik izango<sup>13</sup>.

## 12.4. 1444. URTEA

### 12.4.1. Batzarrak Usarragan eta Azpeitian. Getaria, Durango, Gasteiz, eta abar

1444. urtean Segurako hiribilduak deia egin zuen Bidaniko Usarragan Batzar Bereziak bil zitezen. Ordurako Batzar Bereziek beren garrantzia zuten, eta joaten ez zen hiribildu edo Alkatetzari Batzar Nagusietara joaten ez zirenen isun bera ezartzen zitzaion. 1444. urtean, adibidez, Saiazko Alkatetza Nagusiak ez zuen ordezkariarik bidali Usarragara, eta, Segurak eskatuta, 1.000 maraiko isuna ezarri zioten<sup>14</sup>.

Urte hartantxe, 1444-XI-22an, Azpeitian Gipuzkoako Batzar Nagusiak bildu ziren Antso

Martinez Aranburukoa eskribauaren etxean. Bertan baliorik gabe utzi zuten Segurak Saiazi ezarri zion isuna<sup>15</sup>.

1444. urtean Getarian, urtero bezala balea harraipatzen jardun zuten. Udaleko kontu-liburuan diru-sarrerak azaltzen dira, 180 eta 120 maraikoak, balea banatzen zenean Kontzejuari zegokion zatia, hain zuzen<sup>16</sup>.

Durangon 1444-VIII-20an hiribilduko Kontzejua bildu zen Erdikalean. Han ziotenez, Alonso Mellaren jarraitzaile heretiko batzuk preso harturik zituzten. Bizkaiko prestameroa ere han zen erregearen izenean



12.3. irudia.  
Bidegoian.  
Usarragaz, Batzar  
Berezien bilgunea.

justizia ezartzeko asmotan. Azken hogei urtean heretikotzat hartutako pertsonak ekartzea agindu zuten.

Berriz ere bildu zen Kontzejua 1444. urtean, Andre Mariaren elizaren arkupetan. Bizkaiko prestamero nagusiaren ordezkoa zen han, besteak beste, eta heretikoak Durango aldetik ihes egiten ari zirela zioen<sup>4</sup>.

1444. urtean beste saio bat egin zuten Gasteiz Lur zabaletako Ermandadeekin elkartzeko<sup>1</sup>.

Urte hartako ekainean, Nafarroako Joan I.a erregearen politika tamalgarriaren ondorioz, Gaztela eta Nafarroaren arteko gerra piztu zen<sup>3</sup>. Gainera 1444. urtean Nafarroako Joan I.a errege alargunak Joana Enriquez andrearekin (Gaztelako almirantearen alabarekin) ezkontzeko ituna egin zuen, eta Karlos Biako Printzea haserre bizian jarri zen, Nafarroako gobernu legez berari, eta ez aitari, zegokiolako. Karlos printzeak Gipuzkoara ihes egin zuen<sup>17</sup>.

#### 12.4.2. Otxanda Errementariren heriotza

1441-II-21ean Debako Joan Perez Orexakoaren etxe aurrean ermandade-alkate Otxoa Sebastian Olazabalgoak auzi baten epaia eman zuen (ikus [XV. m. 13] agiria). 1443-VIII-14an Pedro Leizaolak Zubeltzuko etxean lo zegoela Otxanda hil eta lapurreta egin zuen (ehun marai eta beste 200 balio zituen zilarrezko idunekoa). Hildakoaren Otxanda Errementari amak auzitara eraman zuen Pedro Leizaola hiltzailea, eta ermandade-alkateak behin eta berriz dei egin zion aurkez zedin (abisua Joan Belez Leizaolakoa aitari emanda), baina hiltzailea ihes egin zen.

Otxoa Sebastian alkateak frogatutzat jo zuen hiltzailea Pedro Leizaola zela, eta bildutakoei epaia jakinarazi zien: aitzo zorrotzez lepoan ebakia egingo zioten odolustuta hiltzen zen arte. Gainera Pedro Leizaola legegabea zela aldarrikatu zuen. Sei ehun maraiko isuna eta auziko kostuak ordaintzeko zigorra ere ezarri zion errudunari.

Agirian azaltzen diren Errementari, Zubeltzu, Leizaola eta Areitzaga leku-izenak kontuan hartuta, garbi ikusten da gertaera haiek Arroan gauzatu zirena.

12.4. irudia. Arroako Errementari.



## 12.5. 1445. URTEA

### 12.5.1. Ahaide Nagusien gorabeherak, Olmedoko bataila, Batzarrak Usarragan, etab.

1445. urtean, amarengandik oinordetzan jaso ondoren, Gomez Gontzalez Butroekoak Aramaioko bailara galdu egin zuen traizio egin zitoelako<sup>18</sup>.

Urte berean Pedro Abendañok eta gebaratarrek Arrasateko biztanle batzuk legegabetzat jo zituzten, baina hiribilduak geroago arriskutik libratu egin zituen. Hain zuzen Gaztelako Joan II.a erregeak Trujillotik auzitara dei egin zien zazpi arrasatearri delituak eta bidegabekeriak egin zituztelako<sup>2</sup>.

Lope Gartzia Loiolakoak, berriz, 1445. urtean tregoatan Azpeitiko bi biztanle kapare hartu zituen.

Gaztelako Joan II.a erregeak, bestalde, 1445. urtean Olmedon Gorteak bildu zituen, eta ermandade-alkateak izendatzeko baimena eman zuen<sup>1</sup>. Hain zuzen Gaztelako Olmedon bataila izan zen 1445-V-19an Joan II.aren eta Nafarroako erregearen tropen artean<sup>17</sup>. Gaztelakoek irabazi zuten, baina gipuzkoarren laguntza ere izan zuten<sup>19</sup>. Alegiako jendea izan zen, besteak beste. Urte batzuk geroago, 1454.ean, zerbitzua eskertuz Gaztelako Enrike IV.a erregeak gaur egun duten armarrria eman zien<sup>7</sup>.

1445. urtean Usarragan Gipuzkoako Batzar Bereziak bildu ziren<sup>20</sup>.

Eta, azkenik, 1445. urtea gogoangarria da beste arrazoi bat dela medio; izan ere, urte hartan Johannes Gutenberg alemanak letra metaliko aldakorrezko inprenta asmatu baitzuen<sup>21</sup>.

## 12.6. 1446. URTEA

### 12.6.1. Bandoen arteko borrokak. Tolosako Batzar Nagusiak

1446. urtean Joan Lopez Lazkanokoa (Loiolako jaun Lope Gartzia Lazkanokoaren iloba) eta Ladron Balda bere tropekin elkarren aurka borrokatu ziren. Baldak galdu egin zuen, eta Azkoitiari su eman zioten<sup>22</sup>. Bi bandoen arteko borroka Zumarragan izan zen<sup>23</sup>. Gero Joan Lopez Lazkanokoa eta Loiolakoak Ladron Balda, Zarautz eta Iraetakoen aurka jardun zuten, eta borroka hartan Martin Perez Enparangoa, Martin Ibarra eta beste zenbait hil ziren<sup>22</sup>.

Urte hartan bertan, Untzuetakoak eta Zaldibarkoak elkar harturik Elgetakoan aurka aritu ziren hauen hiribilduaren ondoan<sup>23</sup>.

Hiribilduetan bizi zen jendea ere bandotan bananduta elkarren aurka zebilen garai hartan. Arrasaten, esate baterako, 1446an oñaztar ziren Guraiakoen eta

ganboatar ziren Bañez Artazubiagakoan bandoak zeuden. Irailean liskarrak izan zituzten Guraiako bandokoek Otxoa Bañez Artazubiagakoari olatxotik burdin meako zenbait kintal lapurtu ziotelako. Artazubiagakoak korrejidoreari salaketa aurkeztu zion.

Bestalde, Butroeko jauna 1446an Aramaio setiatzen ari zen, seguru asko 1.500 soldadurekin. Horregatik erregeak justizia-gizonen aurrera aurkeztera deitutakoek (ganboatarrek) ezin zuten erregeak agindutakoa betetzera joan. Baliteke orduan Pedro IV.a Belez Gebarakoak bere aldekoiei dei egin izana, arrasatear ganboatarren aurka zeuden salaketak kontrolatzearen<sup>2</sup>.

Gipuzkoako eta Bizkaiko hiribildu askotan zeuden garai hartan bandoak (bata oñaztarra eta bestea ganboatarra) elkarren lehian agintea eduki nahian. Bergaran Ozaeta etxeokoa eta Gabiria etxeokoa (biak oñaztarrek) zeuden. Deban Sasiola eta Irarrazabal

etxeoak (biak ganboatarrak) ibiltzen ziren lehian, Lekeition Martin Perez Likonakoa merkatariak Arteaga etxearen laguntza zuen, eta Iartza etxearen aurka jardun zuen hiribilduko agintea eskuratu nahian. Bermeon Asoaga eta Apiotza etxeoak zebiltzan elkarren aurka<sup>24</sup>.

1446-II-4an Gipuzkoako Batzar Nagusiak Tolosan ospatu ziren. Mutrikuko hiribilduak Elgoibarkoarekin eta Olasoko jaunarekin zituen auziak aztertu ziren.

## 12.7. 1447. URTEA

### 12.7.1. Elgoibarko Batzar Nagusiak, jauntxoaren arteko gatazkak, etab.

1447. urtean “Villamayor de Marquina” edo Elgoibarren Gipuzkoako Batzar Nagusiak egin ziren<sup>21</sup>. Batzar haietan Probintziako gastuak hiribildu eta Alkatetza Nagusien artean sukaldeko sistemaz banatu zituzten. Hiribildu bakoitzak sukalde kopuru bat zuen esleituta, eta haren arabera ordaintzen zituen Gipuzkoak egindako gastuak. Hiribildu bakoitzari esleitutako sukalde kopurua bere horretan mantendu zen hamarkadatan zehar. Noizbehinka oso aldaketa txikiak baino ez zituen izan<sup>15</sup>.

Hiribilduak su hartu edo beste hondamenen bat baldin bazuen (gerra, sutea edo izurritea gehienetan), urtebetez edo zenbait urtez Probintziako gastuak ordaintzea barkatu egiten zioten herri kaltetuari. 1476. urtean, adibidez, guztira zituen 58 sukaldetik 14 sukalde ordaindu beharrekoa hamabost urterako barkatu zioten Hondarribiari, hiribilduak kalteak izan zituelako<sup>26</sup>.

Dena den, agiritan lehen aldiz jasotzen da 1447an gastuak sukaldeko ordaintzeko era, baina zenbaiten iritziz sistema hori erabiltzen lehenago hasiak izango ziren<sup>15</sup>. Gainera, kontuan hartu behar da sukalde kopuruaren proportzioan izaten zuela hiribildu bakoitzak bozketetako boto kopurua ere. Kopuru haiek gutxi aldatu ziren XV eta XVI. mendeetan<sup>14</sup>.

Azpilgoetako lurak Mutrikuri zegozkiola erabaki zuten<sup>20</sup>.

Urte berean, 1446an, olagizonek Ermandadebatzarra egin zuten, eta Ordenantzetan Deba ibaian Altzolaraino nabigatzen zela aipatzen da<sup>25</sup>.

Gipuzkoako hiribildu eta lekuen zerrendan sukalde gehiena Donostiak zuen: 172. Ondoren, kopuruaren arabera, hauek ziren garrantzitsuenak: Azpeitia (130), Arrasate (128), Tolosa (102), Azkoitia (96), Deba (85), Mutriku (83), Segura (60), Hondarribia (58), Oiartzun (56), Getaria (50), Zestoa (49), etab. Gutxiena Zizurkilgo San Miliango txiribogek (1 eta herena), Otxoa Ortiz Igartzakoak (1/2) eta Astigarribiako etxeek (1/2) zuten. Probintziak guztira 2.371,8 sukalde zituen gastuak ordaintzeko eta bozketan botoak erabiltzeko<sup>26</sup>.

1447. urte inguruan Domenjon Gontzalez Andiakoa eskribauak Gaztelako Joan II.a erregearengandik Probintziako “Igorpen eta gauza debekatuen Alkatetza” lortu zuen. Kargu garrantzitsua eta erregearen konfiantzazko gizona zen inola ere. Gaztelako beste zenbait barrutitan ere bazen horrelako Alkatetzarik. Gipuzkoa, izan ere, libre eta irekia zen, Frantzia, Ingalaterra, Aragoi, Nafarroa, Britainiako dukerri eta abarrekin zuzenean tratatuak zituena, bai lehorrez eta bai itsasoz. Gainera lurralde menditsua zenez gero, urri ziren garia eta ardoa. Nafarroa eta Frantziarekin muga zegoen gainera.

Domenjon “Igorpen-alkate” izan zenean “Koaderno” idatzi zuen, eta han Enrike III.a erregeak 1404. urtean emandako Ordenantzen Koaderno jaso zuen. Bertan Probintzian debekatutako gauzen igorpena arautzen zen.

Ez dirudi Domenjon Andiakoak kargua erabili zuenik, zeren Joan II.a erregea kexu baitzen Enrike III.aren Ordenantzak Gipuzkoan betetzen ez zirelako eta Aragoi, Nafarroa eta Ingalaterrarekin debekatutako gaien merkataritzan gehiegikeriak egin zirelako. Joan II.ak berak berretsi zituen delako Ordenantza haiek 1447. urtean<sup>9</sup>.

Gipuzkoako 1447. urteko Ordenantzetan “gomen-dioa” aipatzen da, hots, Ahaide Nagusiak mendekoa babesteko zuen era. Gomendioan sartutako mendekoa-ak diruz ordaintzen zion Ahaide Nagusiari babesa. Dena den, Gipuzkoako Ordenantzak Ahaide Nagusien gehiegikeriei aurka egitekoak ziren; izan ere, haiek Kontzejuei eta pertsona ospetsuei desafio egiten zieten, hiri, burdinola eta etxeak erre egiten zituzten, dorreak eraitsi egiten zituzten, lapurretak egiten zituzten, etab.<sup>24</sup>.

1447. urtean Pedro IV.a Belez Gebarakoak, 25 urte zituela, Oñatiko jaurgoa bere esku hartu zuen. Oñatia-

rrek obeditzea eta haren justizia, foru eta pribilegioak errespetatzea agindu zuten.

Dena den, 1447-VIII-28an Legazpin borroka egin zuten gebaratarrek Muxika-Butroe eta oñaztarren aurka. Oñaztarrek 12 gebaratar hil eta 50 preso hartu zituzten<sup>2</sup>. Lehentxeago, 1447-III-13an, Martin Ruiz Ganboakoa, Olasoko jauna, Joana Ibañez Butroe eta Muxikakoarekin ezkondu zen. Emaztea Gomez Gontzalez Butroekoaren (Aramaioko jaun oñaztarraren) alaba zen. Lau seme-alaba izan zituzten<sup>1</sup>.

Geroxeago, 1447ko udaberrian, Balda etxeoak beren jarraitzaileekin Berastegiri erasotzen saiatu ziren, baina lazkaotarrek Butroekoen laguntzaz ganboatarrak berriz garaitu zituzten. Gori-gori zegoen, beraz, Ahaide Nagusien arteko giroa<sup>23</sup>.

12.5. irudia. Lasaoko markesaren etxea.



Garai hartan Zestoan, besteak beste, Lasako burdinola martxan zebilen, eta erregeak eskubidea zuen “albala eta hamarren zaharra” izeneko zerga kobratzeko. 1447.ean Lasako eta Gabiolako burdinoletako eskubide haiek Lope Martinez Lasakoak lortu zituen (6.000 marai)<sup>27</sup>.

1447. urtean Donostian Antso Engomez zen “Kanpoko Ofiziala”, hau da, Iruñeko elizbarrutiak bere Gipuzkoako lurralderako Elizako gaietarako zuen epailea. Donostiako Udaleko Ordenantzetan lehen auzialdia Kanpoko Ofizialarengana joanda egitea agintzen da, eta gero, gora jotzea nahi izanez gero, joango ziren Iruñeko auzitegira<sup>28</sup>.

## 12.8. 1448. URTEA

### 12.8.1. Bandoak borrokan eta Arrasate kiskalita. Itziarko kofradia

1448. urtean ganboatarrak Berastegiko San Miliango oinetxea (oñaztarra) setiatuta eduki zuten. Martin Ruiz Ganboakoa, Olasoko jauna, zen tropen buru, eta laguntzaile zituen Balda, Iraeta eta Zarautz etxeokak<sup>1</sup>. Berastegiko dorreari bonbardaz eraso zioten. Bi mila eta bostehun gizon omen ziren borrokan, baina oñaztarrei laguntzera haiek etorri ziren: Joan Lopez Lazkanokoa, Urtubiko Joan jauna bere suhiarekin, Untzuetakoak, Zaldibarkoak eta beste zenbait oñaztar.

Ganboatarrak oñaztarrak baino gehiago ziren, eta talde bakoitza bere finkalekuan gotorturik zegoen. Talde bakoitzeko zenbait borrokara atera ziren, eta oñaztarrak galtzaile suertatu ziren, ganboatarrak hamar gizon hil zizkietelako. Orduan Joan Lopez Lazkanokoa eta Urtubiko jauna zaldi banatan beren soldaduekin irten eta 24 ganboatar hil zituzten. Gero su-etena itundu eta bakoitza bere lurretara erretiratu zen<sup>29</sup>.

Urte berean, 1448-II-26an, Segurako hiribilduak auzotarrenak ziren inguruko herrixken laguntza militarra segurtatu zuen bertako jauntxoek erasoei aurka egiteko. Laguntza haren premia izan zuten, noski, zeren eta urte hartako urrian Lazkaoko jauna hiribildura sartu baitzen. Zenbait auzotar jazarri eta ondasunak hondatu zizkien. Kontzejuari harresietako ate bat puskarazi egin zion, Elbira Gaona emaztea bere segizioarekin hiribildura sar zedin. Joan Lopez Lazkano-

koa ahaide nagusiak dorrea eraiki nahi zuen hiribilduan, bertako jendea tregootan mende edukitzearren. 1448ko azken hilabeteetan, ordea, Segurako Kontzejuak Gaztelako Joan II.a erregearen babesa jaso zuen<sup>14</sup>.

Bandoen arteko gatazkak goi-maila 1448an Arrasate ganboatarrak erre zutenean izan zuen. Hiribilduaren barruan batzuk Guraia etxearen taldekoak (oñaztarrak) ziren, eta beste batzuk Bañez Artazubiaga etxearen taldekoak (ganboatarrak). Ganboatarrak, Pedro IV.a Belez Gebarakoa (Oñatiko jauna) buru zela, honako jaun haiek eta beren tropak bildu zituzten: Bizkaiko Igorreko Urkizuko jaun Pedro Abendaño eta Martin Ruiz Arteagakoa, Elgoibarko Martin Ruiz Ganboakoa (Olasoko jauna), Azkoitiko Ladron Balda, Azpeitiko Joan Perez Loiolakoa, Usurbilgo Joan Beltran Atxaga, Joan Ortiz Zarauzkkoa, Zestoako Fortun Santxez Iraetakoa, Arrasateko Otxoa Bañez Artazubiagakoa, Martin Lopez Olabarriakoa, Lope Fernandez Osinagakoa, Martin Bañez eta beste asko. Guztira 2.500 inguru omen ziren ganboatarrak.

1448-VI-10aren inguruan, hiribilduko oñaztarrek egoera ikusita, Bizkaiko butroetarrei dei egin zieten. Hurrengo egunean etorri zen Gomez Gontzalez Butroekoa bostehun gizonekin, baina ez ziren aski ganboatarrei aurka egiteko. Butroekoak Bergaratik eta Lazkaotik jende gehiago espero zuen, eta adoretu ekin zion borrokari. Azkenean hiribilduko Aramaio aldeko portaleko atea ireki zuen, seguru asko barruko oñaztarrek lagunduta, eta hiribilduaren barruan babestu ziren.

Orduan Arrasateko kaleetan etxez etxe hasi zen borroka. Han jardun zuten elkar hiltzen amorrubiziaz. Hamar eguneko borrokaldi odoltsua izan zuten herriko kaleetan. San Joan bezperan Pedro IV.a Belez jaunaren erabakiz herriari su eman zioten, eta ganboatarrak portaleak zaindu zituzten, irteten zuten oñaztarrak errukirik gabe hiltzeko. Etxe gehienak zurezkoak zirenez gero, Arrasate kiskalita geratu zen<sup>30</sup>.

Beste bertsio batek dioenez, Bañez Artazubiaga etxeok dei egin zioten gebaratarrei Guraia etxeokoen aurka egiteko. Pedro IV.a Belez Gebarakoa Arrasatera sartu zen, baina oñaztarrek garaitu egin zuten ekainaren 11n, eta hiribildua oñaztarrek hartu zuten. Han zeuden harresien barruan, ganboatarrak kanpoan setiatzen zituztela. Ganboatarrei honako hauek gehitu zitzaizkien hurrengo egunean: Martin Ruiz Olosokoa, Ladron Balda, Zarautz, Atxaga, Abendaño, Irae-

12.6. irudia. Arrasateko Maisu Arano kaleko portalea.



ta (Fortun Santxez buru zela), Urkizu, A rteaga (Gernika ondoko Gautezigkoa) eta abarretako jaunak, beren laguntzaile guztiekin.

Oñaztarrak hiribildutik aterarazi nahian, herriari su eman zioten ganboatarrak, barruan alde zituztenen laguntzaz ere baliaturik. Gomez Gontzalez Butroekoa oñaztarra hantxe hil zuten, besteak beste. Bi etxe eta eliza ez beste guztia sutan kiskali zen. Eliza gero arpilatu egin zuten irabazleek.

Gertaera tamalgarri haren ondoren, erregeak neurriak hartu zituen. Pedro Gonzalez Carabeokoa eta Diego Lopez Portocarrerokoa Gorteko alkateekin Joan Rodriguez Verakoa auzitegi-entzulea bidali zuen Arrasatera. Gipuzkoako merio nagusi zen Pedro Lopez Aiarakoarekin gertatutakoaz jabetu eta berri eman behar zioten. Su-emailei dei egin zieten, baina, bi izan ezik, ez ziren agertu. Merio nagusiak eta Joan Rodriguez entzuleak epaia Tolosan 1448-XII-18an jakinarazi zuten. Pedro IV.a Belez Gebarakoa eta lehen aipatutako jauntxoak putzuan uretan itota hiltzera kondenatu zituzten. Beren ofizioak eta ondasun guztiak galduko zituzten (ondasunen erdiak erregearen ganberarentzat izango ziren). Ganboatarrak Butroekoen ondorengoentzat, laugarren mailaraino, etsaitzat aldarrikatu zituzten, eta beren etsaiak hil ahal izango zituzten inolako zigorrik jaso gabe. Hiribildu barruan su ematen jardun zuten biztanleak eta gainerako guztiak (300 bat) bizirik erretzera kondenatu zituzten. Dena den, epai haietako asko ez zen gauzatu<sup>2</sup>.

Gertaera tamalgarri hartan Fortun Santxez Iraetakoak Zestoako jendea eraman zuen borrokara. Lope Otxoa Iraetakoa ere aipatu izan da, Arrasaten 20 zestoarrekin gatazkan parte hartu zuela eta<sup>31</sup>.

Esteban Garibairen bertsioak dioenez, Arrasateko eliza ere erre egin zen, eta ganboatarrak herri osoa arpilatu zuten. Sutea, gainera, uztailaren 16an, ostegunez, gertatu omen zen<sup>4</sup>.

Jose Luis Orella historialariak dioenez, Pedro IV.a

Belez Gebarakoa 2.000 gizonekin Arrasateko hiribildura sartu zen Guraia etxeokoa eta Bañez Artazubiaga etxeokoa liskarretan zebiltzala. Urkizuko jaun Pedro Abendañoren Joan Abendaño anaia lagun zuen gebaratarrak.

Guraiatarrek, orduan, Gomez Gontzalez Butroekoi eta oñaztarrei dei egin zieten. Butroekoa 600 gizonekin hiribildura sartu zen, Pedro Abendañok kendu zion Aramaioko jaurgoa berreskuratu asmoz.

Ekainaren 13an ganboatarrak heldu ziren Arrasatera. Laguntzaile hauek zituen: Martin Ruiz Ganboakoa, Ladron Balda eta Zarautz, Atxaga eta Iraetako jaunen tropak. Pedro Abendaño eta Martin Ruiz Arteagakoa ere bildu ziren beren soldaduekin; guztira bi mila inguru.

San Joan gauean Arrasateko hiribildua sutan erre zen. Su-emaileak Bañez Artazubiagakoaren leinukoak eta Pedro IV.a gebaratarraren laguntzaileak izan omen ziren. Gomez Gontzalez Butroekoa sutean hiribildutik irten egin zuen. Aramaioko ibarretik ihes egiten saiatu zen, baina han ganboatarren tropak zain zituzten. Orduan Bergara aldera abiatu ziren ihesi. Denen aurrean Lope Untzuetak bidali zuen Butroekoa, Arrasateko Madalenako errebelean gotortu eta Joan Lopez Lazkanokoa iritsi arte irautearren. Untzuetakoak Martin Ruiz Ganboakoa Gomez Gontzalezi bidali zion gutuna eskuratu zuen. Arrasatetik seguru alde egiteko aukera eskaintzen zion. Gutun hari esker Lope Untzuetak ganboatarren tropen artetik irten ahal izan zuen. Gero Gomez Gontzalez Butroekoa Madalenako errebalera iritsi zenean, ganboatarrak eraso eta hil egin zuten. Ondoren, ganboatarrak, hiribildua arpilatzeari ekin zioten<sup>1</sup>.

Arrasate erretzeak kanta ugari sorrarazi zuen, eta haietako zati batzuk jaso ahal izan dira. Ibarguen-Cachopin-en kronikatik eskuratu ahal izan dira batzuk. Zati horien testua eta hizkuntza aldetiko azterketa ikus K. Mitxelenaren<sup>12</sup> edo Santi Onaindiaren<sup>11</sup> idazlanetan.

1448-1468 bitartekoa da Errodrigo Zarateren eresia ere, zeina Ahaide Nagusien arteko borroketan girotua baita. Honela dio kantaren hasierak:

“Arma escuduac on dira dardos,/ pareric estabe canporacos,/ çaratearrac galdu ei dabe Marquia-Çuya çeculaco”<sup>32</sup>.

Aipatzekoa da, bestalde, Urtubiko jauna ere, zeren 1448an bere Urruñako gaztelua eraikitzeari amaiera eman baitzion<sup>5</sup>.

Urte berean, 1448-II-25ean Deban Itziarko Andre Mariaren marinela-kofradiak Ordenantzak onartu

zituena. Kofradiako kideek, zin eginda, haiek betetzera behartu ziren. Kide batzuk hauek ziren: Lope Igartza, Lope Gonzalez Ibarrolakoa, Martin Ibañez Areitzagakoa (eskribaua), Pedro Ibarrola, Matxikor Leizaola, Joan Arrona eta Martin Arrona. Ordenantzetako batean hau ezartzen da: alegia, urtero abuztuan, Ama Birjinaren jai ondoko lehen igandean eta igande ondorengo astelehenean, kofradiako kideak Itziarko elizan bildu egingo zirela, eta otordua egingo zutela. Debako Kontzejuak otordua beste egunen batean egitea erabakitzen bazuen, Kontzejuak esandakoa beteko zuten. Orain Itziarko “kopraixak”, herriko festak, abuztuko lehen igandean ospatzen dira.



12.7. irudia.  
Itziar. Herriko plaza.

## 12.9. 1449. URTEA

### 12.9.1. Arrasate erretzearen ondorenak, Ermandade zabala, etab.

Arrasateri su eman ondoren, Pedro Lopez Aiarakoak eta Joan Rodriguez Verakoak elkarrekin su-emaileentzat emandako epaia gogorra izan zen. Asko ziren hiltzera kondenatuak, eta haietako zenbait jaun boteretsuak ziren, erregeak bere gerretarako behar zituenak. Pedro IV.a Belez Gebarakoa zen heriotza-zigo-

rra ezarritakoetan indartsuena, Pedro Lopez Aiarakoak merio nagusiaren iloba, hain zuzen. Orduan alde bateko eta bestekoen ordezkariak elkarrizketatzen hasi ziren. Beren harremanak izan zituzten, eta, ondorio gisa, Gaztelako Joan II.a erregeak zigorrak aldatu egin zituen (1449-VIII-7). Putzuan itota edo sutan hil ordez, kondenatutakoek Antequera aldean hiru urtez zerbitzatuko zuten erregea musulmanei borroka eginez.

Ahaide Nagusiek, erbesteratu arren, beren errentak jasotzen jarraitu zuten. Gebaratarrek, adibidez, Arrasateko eskribautzatik eta burdinoletatik hurrenez hurren 400 marai eta 6.600 marai jaso zituzten<sup>2</sup>.

1449-X-15ean Gaztelako Joan II.a erregeak Valladolidtik Anton Ruiz Leongoa epaile izendatu zuen honako jaun hauek epai zitzan: Pedro IV.a Belez Gebarakoa, Pedro Abendaño, Martin Ruiz Arteagakoa, Martin Ruiz Ganboakoa, Ladron Balda, Joan Perez Loiolakoa, Joan Beltran Alliaga eta honen seme Migel, Joan Ortiz Zarauzkoa, Fortun Santxez Iraetakoa, Otxoa Bañez Artazubiagakoa, Rodrigo Ibañez Abendañokoa, Martin Lopez Olabarrietakoa, Lope Fernandez Osinagakoa, Rodrigo Fernandez Osinagakoa eta Joan Oro.

Ahaide Nagusi hauetako inork ere ez zuen onartu Joan Ruiz Verakoak (erregearen Entzutegikoak) eta Gipuzkoako merio nagusi Pedro Lopez Aiarakoak emandako epaia<sup>1</sup>.

Euskal Herriko jauntxoek arteko etsaitasuna eta ondorioak ikusita, Gaztelako Joan II.a erregeak 1449-VIII-3ko agiriaren bidez agindua eman zien honako hauei Ermandade batean bil zitezen: Gipuzkoa, Bizkaia, Gasteiz, Urduña, Arabako Lur zabala, Balmaseda, Menako lurraldea, Enkartzioak, Friasko merindadea, Pancorbo, Miranda de Ebro, Ozkabarte eta Errioxako merindadeari<sup>33</sup>.

Jose Luis Orella historialariak erregearen 1449-VIII-4ko agindua aipatzen du, eta Ermandade horretan lehen aipatutakoez gain Trasmiera, Santander, San Vicente de la Barquera, Gaubea, Losa, Anguloko ibarra, Laredo eta beste zenbait sartzen ditu<sup>1</sup>.

1449-VI-29a arte Ermandadeko alkateak bi zirku lu geografikotan aukeratzen ziren, eta hautatzeko ahalmena honako hiribildu hauek zuten: Batetik Donostiak (2 urte), Hondarribiak (urtebete) eta Errenterriak (urtebete), eta bestetik Tolosak (3 urte) eta Hernanik (urtebete)<sup>26</sup>.



12.8. irudia. Hondarribiko San Nikolas portalea.

1449ko maiatzean edo ekainean, Segurako bi biztanle salatu egin zituzten Azpeitiko lurretan delituak egin zituztelako. Martin Ipintza ermandade-alkateak atxilotu egin zituen, baina, Azpeitian kartzelarik ez zuelako, Loiolako jaunari, Joan Lopezi, utzi zizkion katez ondo lotuta hark bere dorrean eduki zitzaizkien.

Orduan Segurako hiribilduak, preso zeuden segurrak babestu nahian, Ermandade-batzarrerako dei egin zuen. Bertan bederatzi hiribildu elkartu ziren: Donostia, Tolosa, hiru Alkatetza Nagusiak, etab. Gerrarako dei egin zuten, hots, 20 eta 70 urte bitarteko gizonak armak hartu behar zituzten, eta Usarragan elkartuko ziren 1449-VI-12an Loiolako dorreari eraso eta preso zeudenak askatzearren.

Bere etxea mehatxatuta ikusirik, Joan Perez Loiolakoak jendaurrean jakinarazi zuen elkartutako hiri-bilduak auzitara eramango zituela eta, erasorik baldin bazegoen, hango kalteen erantzule ez zela izango<sup>14</sup>.

1449. urtean, eta hurrengoan, Ehun Urteko gerraren amaieran Lapurdi eta Zuberoa Frantziako koroari erantsi zitzaizkion<sup>34</sup>.

### 12.9.2. Lili eskribaua eta Aizarnazabalgo erretore berria

1449-VI-11n Aizarnazabalgo elizaren atarian bertako eliztarrak bildu ziren (agirian elkartutakoen izen-dei-

turak aipatzen dira) Eneko Martinez Lilikoa eskribauaren aurrean. Berrogeita hamar bat egun lehenago hil zen lehengo erretorea, Andres Zarautz, eta Iruñeko apezpikuak berria izendatzea nahi zuten. Eliztarrak beren esku zuten elizako patronatua, eta, ondorioz, apezpikuari Martin Ierroa apaiza aurkeztu zioten kargu hartarako. Martin jauna zintzoa eta bizimodu oneko pertsona zen.

Agirian lekuko azaltzen dira Aizarnazabal eta Oikiako biztanle batzuk (orduan Zumaiaiko auzotar ziren) eta Joan Saez Errezustakoa Zestoako auzotarra. Eneko Martinez Lilikoa, berriz, eskribau zen Gipuzkoako merindadean eta Kalagorriko elizbarrutian (ikus [XV. m. 14] agiria).



12.9. irudia. Aizarnazabalgo eliz ataria.

Aipatutako agiriari erantzunez, 1449-VI-28an Martin Peralta “Zaharrak”, Iruñeko apezpikuak, Martin Ierroa Aizarnazabalgo erretore izendatu zuen (ikus [XV. m. 15] agiria).

Apezpikuak zioenez, erretore berriak eliztar guztien arimak zainduko zituen. Elizari zegozkion eta etorkizunean zegozkiokeen ondasun eta eskubide

guztien arduradun izango zen erretore berria. Beste inork Aizarnazabalgo elizako erretore zelakoan Martin Ierroari aurka egiten bazion, beste ezer gabe une berean kenduko zen aurka egiten ziona kargutik.

Martin Ierroak ebanjelioak eskuaz ukituta zin egin zuen Iruñeko apezpikuei leialtasuna gordeko ziela eta haiek agindutakoa beteko zuela.

## 12.10. 1450. URTEA

### 12.10.1. Ahaide Nagusiak, Batzar Nagusiak Zestoan, Bianako Printzea, etab.

1450-II-20an Toro-n Gaztelako Joan II.a erregeak agindua eman zien ermandade-alkateei Ahaide Nagusiei laguntzen zietenen aurka egin zezaten. Ahaide Nagusiekin tregoatan edo gomendiotan zeudenak preso hartu eta ondasunak bahitu egingo zizkieten<sup>35</sup>. Antzeko aginduak eman zizkion Zamoran Anton Ruiz Leongoari 1450-III-13an eta Avilan 1450-VII-30ean<sup>1</sup>. Erregearen asmoa Ahaide Nagusiak jarraitzailek eta botererik gabe uztea zen.

Gebatarren jarraitzaile bat Martin Ibañez Artazubiagakoa zen, 1450ean ezkondu zenean Arrasateko Uribarrin Ibarretako burdinola eta errotak aita Otxoa Bañez Artazubiagakorengandik jaso zituena<sup>2</sup>.

Urte hartan, maiatzaren 7an Zestoan Gipuzkoako Batzar Nagusiak bildu ziren, eta, dirudienez, urte berean azaroan ere bai Arrasaten<sup>36</sup>. Zestoako Batzarretan Martin Gartzia Garragakoa (Garratzakoa?) zen Probintziako eskribau fiela, eta hark idatzi zituen aktak. Ustez Arrasaten udazkenean egin zirenetan, berriz, Joan Perez Loiolakoari barkamena eman zioten zenbait epaile arbitrok. Hitzarmen-eskritura Tolosako alkate, fiel eta zinegotziek eman zuten, Joan Iñiguez Albizturkoa eskribau zela<sup>20</sup>.

1450. urtean, bestalde, Nafarroan Joan I.a erregearen eta haren seme Karlos Bianako printzearen arteko gerra hasi zen. Beaumontarren (Bianako printzearen

aldekoen) eta agaramontarren (Joan I.a erregearen aldekoen) arteko borrokak izan ziren<sup>5</sup>.

Bianako printzeak Nafarroatik ihes egin zuen Gipuzkoara. 1450-VIII-28an Donostian zen, eta Karlos printzearengandik muga-askatasuna lortu zuen. Beraz, Nafarroara sartu edo Nafarroatik zetozen bide-sari eta zerga guztiak salbuetsita geratu ziren<sup>25</sup>.

Gaztelako erregeak Bianako printzearen alde egiten zuen, eta Frantziarekin elkar hartuta Ingalaterrari gerra deklaratu zion 1450-XII-10 eta 12an<sup>17</sup>. Dena den, gerra-giro hartan, Frantziako armada Baionara etortzekoa zelako eta inbasio-beldurra zegoelako, Gipuzkoako herriak armaturik prest egon ziren<sup>19</sup>.

1443. urteari dagokion atalean adierazia dugu oñaztarrak eta ganboatarrak elkarren arteko bakealdia zutela, eta Gomez Gontzalez Butroekoak alaba Joana senargai Martin Ruiz Olasokoarekin ezkontzeko ituna egin zuela. Gero berriz etsaitu ziren bi familiak, baina 1450-I-18an Joana Butroekoa eta Martin Ruiz Olasokoa, azkenean, ezkondu egin ziren.

Ustez 1450. urtekoa da Sandailia izeneko kanta<sup>11</sup>. Gaizakile batzuk (Antso Gartzia bere lagunekin) Oñati ondoko Sanda Ilia izeneko haitzuloan babestu ziren. Mendoza (seguru asko Joan Hurtado Mendozakoa) merio nagusiak setiatu eduki zituen, baina ez zuen haiek atxilotzerik lortu. Orduan “Sandailia” izeneko kantak atera zituzten: “Sanda iliac atead ditu zizarrez...”<sup>12</sup>.

## 12.11. HAMABIGARREN KAPITULUKO OHARRAK

<sup>1</sup> ORELLA UNZUE, J. L. Instituciones de Guipúzcoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (76, 103, 111, 117, 128, 274. or.).

<sup>2</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (s. XI-XVI). I. Estudio. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1985. (156, 180, 181-184, 193, 417. or.).

<sup>3</sup> GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona. s. XIV-XV. II. alea. Iruñea, 1979. (517. or.).

<sup>4</sup> LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. III. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1968. (108-111, 131-135. or.).

<sup>5</sup> ALBIZU, X. eta beste. Euskal Herriaren Historia I. (Historiaurretik Nafarroaren konkista arte). Gaiak argit. Donostia, 2004. (165, 166, 171. or.).

<sup>6</sup> CARO BAROJA, J. Los Vascos. Istmo argit. Madril, 1971. (287, 288. or.).

<sup>7</sup> XX. 750 urtean Tolosan, in Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, 2006-IX-13.

<sup>8</sup> TENA GARCIA, M. S. La Sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500). Donostia, 1977. (374. or.).

<sup>9</sup> DIEZ DE SALAZAR, L. M. eta AIERBE, R. M. *Autoría y contenido del Libro de los Bollones*, in El Libro de los Bolones. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (115, 116, 121. or.).

<sup>10</sup> RUIZ DE LOIZAGA, S. Documentación Medieval de la Diócesis de San Sebastián en el Archivo Vaticano (Siglos XIV-XV). Tuesta bilduma, 2. Erroma, 2000. (127-129. or.).

<sup>11</sup> ONAINDIA, S. Euskal Literatura (I). Etor argit. Bilbo, 1972. (41-45. or.).

<sup>12</sup> MITXELENA, K. Textos arcáicos vascos. Minotrauro argit. Madril, 1964. (79, 81-98. or.).

<sup>13</sup> HIDALGO DE CISNEROS AMEZTOI, C. eta beste. Colección documental del Archivo Municipal de Durango. Tomo I. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 20. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1989. (34-43. or.).

<sup>14</sup> LEMA PUEYO, J. A. “*Por los procuradores de los escuderos hijosdalgo*”: de la Hermandad General a la formación de las Juntas de la Provincia de Guipúzcoa (siglos XIV-XVI), in El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539). (72, 73, 75-77. or.).

<sup>15</sup> ORELLA UNZUE, J. L. eta beste. Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (42, 44, 105, 167, 260. or.).

<sup>16</sup> TXUEKA ISASTI, F. *Getariako erregearen balea eta Donostiako probestua*, in Boletín LXIV-1-2008. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Donostia, 2008. (116. or.).

<sup>17</sup> LACARRA, J. M. *Historia política del Reino de Navarra*. III. alea. Nafarroako Aurrezki Kutxa. Aranzadi argit. Iruñea, 1973. (257, 261, 263. or.).

<sup>18</sup> SAN MARTIN, J. *El solar de Unzueta y su participación en el bando oñacino*, in Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, 1961. Donostia. (385. or.).

<sup>19</sup> AROZENA, F. *Guipúzcoa en la historia*. Minotauro argit. Madril, 1964. (99. or.).

<sup>20</sup> ELOSEGI, J. *Juntas Generales y Particulares de Guipúzcoa*, in Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. XXXIV. Urtea. 3. eta 4. koadernoak. Donostia, 1978. (542, 543. or.).

<sup>21</sup> ARIZAGA, B. *Erdi Aroa eta hiri-mundua*, in Euskaldunak Historian barrena. Jokabideak, pentsamoldeak eta eguneroko bizitza. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1989. (95. or.).

<sup>22</sup> XX. Extractos de noticias relativas a los Bandos de los Parientes Mayores de los años 1420, 1446 y 1456. Loiolako Artxibo Historikoa. Loiola familiako fondoa. 0002/001. (Isastiren eranskina, 20. 1. or.). (Oharra: letra modernoz eskuz egindako kopia da).

<sup>23</sup> FERNANDEZ DE LARREA ROJAS, J. A. *Los señores de la guerra en la Guipúzcoa bajomedieval*, in Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548). Iturriak, 2. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2000. (29. or.).

<sup>24</sup> AROZENA, I. *Los Parientes Mayores y las guerras de bandos en Guipuzcoa y Vizcaya*, in Historia del Pueblo Vasco 1. Erein argit. Donsotia, 1978. (158, 163, 166, 170. or.).

<sup>25</sup> BARRENA OSORO, E. *Gipuzkoako Komunikabideen Historia*. 1/ Aintzinaroa eta Ertarora. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1991. (143, 145. or.).

<sup>26</sup> ORELLA UNZUE, J. L. *Instituciones de Gipuzkoa en el Libro de los Bollones*, in El Libro de los Bollones. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (187-189, 193, 327-334. or.).

<sup>27</sup> DIEZ DE SALAZAR, L. M. *Ferrerías guipuzcoanas*. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI). Donostia, 1997. (401, 402. or.).

<sup>28</sup> GOÑI GAZTANBIDE, J. *El Oficial Foráneo de San Sebastián. Del siglo XIV al XIX*, in Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián. Donostia, 1969. (13. or.).

<sup>29</sup> MORA AFAN, J. C. *Zizurkilgo Historia (1186-1615)*. Tolosaldea Historia Bilduma, 08. Aranzadi. Zizurkil, 2005. (74. or.).

<sup>30</sup> LEKUONA, M. *Mondragoe sutan (1448)*, in EGAN 1-3, 1970. Donostia. (34-35. or.).

<sup>31</sup> ACHON INSAUSTI, J. A. “Avoz de Concejo”. Ikerlanak, 2. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. Donostia. (100-102, 164, 165. or.).

<sup>32</sup> ARRIOLABENGOA, J. Erdi Aroko kanta ezezagunak Ibarгүйen-Cachopin kronikan (1570-1620), ASUJ, XXX-1, 1996, 94.

<sup>33</sup> HERRERO, V. J. eta BARRENA, E. Archivo Municipal de Deba. (1181-1520). I. Fuentes documentales del País Vasco, 123. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2006. (128-141. or.).

<sup>34</sup> GARCIA KORTAZAR, J.A. *Erdi Aroa eta landa-mundua*, in Euskaldunak Historian barrena. Jokabideak, pentsamoldeak eta eguneroko bizitza. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1989. (95. or.).

<sup>35</sup> XX. 1450-II-20. Toro. Cédula del rey don Juan II dada en Toro, mandando que todos los que estuvieran adheridos a los Parientes mayores en sus treguas se eximan de ellas, porque la palabra real les libra de cualquier obligación. (GAO. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa. XV. m. [6]. JD IM 1/6/1).

<sup>36</sup> LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J. A. *Regesta de las Juntas Generales y Particulares de Gipuzkoa hasta 1550*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (105. or.).